

AURKIBIDEA

- 1) SARRERA
- 2) KONTSIGNATARIOEK JARDUTEKO MODUA
- 3) ERABILTZAILEENTZAKO ARRETA ZENTROAK (EAZ) JARDUTEKO MODUA
- 4) ADUANAK JARDUTEKO MODUA

1) SARRERA

- a. epuertobilbao plataformaren bidez kudeatutako informazio-trukaketa guztientzako kontingentzia-prozedura aktibatuko da, sistema erabilgarri ez dagoela hauteman eta 15 minutu pasatu ondoren.
- b. epuertobilbao plataformaren Erabiltzaileentzako Arreta Zentroak (EAZ) aktibatuko du prozedura, epuertobilbaoren erabiltzaile guztiei mezu bat bidalita. Mezuan adieraziko du gertakaria zergatik izan den eta zenbat irautea aurreikusten den.
- c. Bilboko EAZren telefonoa, 902 10 16 14, eskuragarri egongo da gertakariari buruzko edozein kontsulta egiteko edo informazio eskatzeko.
- d. Sistema erabilgarri ez dagoen denbora-tartean, hirugarren kontaktu-bide bat prestatuko da 608 794 425 telefono mugikorraren bidez (gertakarietan soilik funtzionatuko du).
- e. Gertakari konpondu eta gero, Bilboko EAZk mezu elektronikoa bat bidaliko du, zerbitzua berriz ezarri dela jakinarazteko.

2) KONTSIGNATARIOEK JARDUTEKO MODUA

Salgai arriskutsuen espedienteak kudeatzeko kontingentzia-prozedura hau aktibatzeke abisua jaso ondoren, honela jokatu behar dute:

- Salgai arriskutsuen espedienteak Santurtziko EAZri bidali behar zaizkio **faxez** (zenbakia: 944 871 245) BPAren webgunean (www.epuertobilbao.com).eskuragarri dauden salgai arriskutsuen aitopenen ereduak erabiliz.

Oharrak:

1. **Berehala sartu eta irtengo** diren salgai arriskutsuen jakinarazpenak bakarrik bidali behar dituzte kontsignatarioek.
2. Kontsignatarioek jakinarazpen horien baimena jasoko dute fax bidez.
3. Plataforma martxan dagoenean, **epuertobilbao-ra bidali behar da** berriz ere dokumentazio guztia, gertakarian paper-formatuan aurkeztu dena barne, ohiko zirkuituaren bidez.

3) ERABILTZAILEENTZAKO ARRETA ZENTROAK (EAZ) JARDUTEKO MODUA

Salgai arriskutsuen espedienteak kudeatzeko kontingentzia-prozedura hau aktibatzeke abisua jaso ondoren, honela jokatu behar du:

- Faxez jasoko dituzte kontsignatarioek bidalitako espedienteak, eta, horien artetik, premiazkoenak direnak aukeratu behar dituzte.
- Espediente horietarako, **espediente-zenbakirik** gabeko baimen bat egingo du, eskuz.
- Kontsignatarioei, terminal zamaketariari eta Itsas Kapitaintzari bidali behar zaio baimena **fax bidez**.
- Itsas Kapitaintzak **baimenik ematen ez badu**, ukapena berariaz adierazten duen agiria bidaliko dio kontsignatarioari fax bidez.

4) ITSAS KAPITAINZAK JARDUTEKO MODUA

Salgai arriskutsuen espedienteak kudeatzeko kontingentzia-prozedura hau aktibatzeke abisua jaso ondoren, honela jokatu behar du:

- Salgai arriskutsuak onartzeko Bilboko Agintaritzak fax bidez bidalitako baimenean oinarrituz, horiek onartzea baimenduko du **lehenespenez**.
- **Baimenik eman ezean**, fax bat bidali behar dio Santurtziko EAZri, ukapena berariaz adieraziz.